



TXIRRITXOLA

2. ZENBAKIA

1.991. EKO ABENDU/BAKIOKO EUSKARA BATZORDEA

Munduan nahi duenak luzaroan bizi oiloekin ohera eta txoriekin jaiki
Abenduko eguna argitu gabeko iluna

Gure eskolak bost urte

Bakion eskola zahar bat geneukan. Baina umeak, gurasoak eta irkasleak eskola berri bat nahi genuen. Eta lortu genuen.

Orain eskola berria daukagu. Bost urte bete ditu. ZORIONAK!!

Eskola umeena da.

Eskola gurasoena da.

Eskola Herriarena da.

Eskola zaindu beharra daukagu. Eskola euskeraren lantegi txiki bat ere bada. Berton, euskeraz ikasten da. Hemengo ikasleak



euskeraz egingo dituzte karrerak eta lanak.

Euskera maite badugu, maite dezagun eskola.

**Guztiok
eskolaren alde!
Guztiok
euskeraren alde!**

**EUSKARAK ez du errurik,
nik ez diot ezarriko,
euskarak ez du errurik.
Neu naiz errudun euskara
indartu ez dudalako,**

**su arma ez dudalako,
eskutan hartu ta zirt-zart
ez darabilkidalako
nonnahi ta zernaitarako.**

B. Gandiaga

GALIPOT : Futboletik datorren musika taldea

Joan zen uztailaren 20tik, musika talde bat jo ta ke dabil ensaiuetan: GALIPOT Taldea "TXIRRITXOLA"-k haiengana jo du eta hona hemen egin dien elkarrizketa:

G.: Nortzuk osatzen duzue taldea?

E.:Iraultza eta Asierrek kitarra jotzen dute, Aitorrek baxua, Arkaitzek bateria eta Etorrek abesten du. Hauetaz gain, Arnalek Etorri laguntzen dio hitzak prestatzeko orduan

G.: Azaldu eizuzue laburki zuen sorrera:

E.:Orain urte bi sortu zen ideia, "zazpikotea"rengandik hain zuzen ere (Bittortxu, Arnal, Aritza, Iraultza, Ekaitz, Etor eta Arkaitz). Baina handik gutxira ahaztu genuen. Geroxeago Asier eta Aitorrek kitarrek erosi zituzten, hauei Iraultza gehitu zitzaion, eta ondoren taldea osatzeari ekin genion".

G.: Zergatik "GALIPOT"?

E.:Historia aspalditik dator. Orain urte batzuk, Emerandotarrek "Kinito" bat jolasten geundela, ORO garagardoa atara ziguten, eta garagardoa hain beltza zenez gero, Emerandotar batek oihu egin zuen: HAU DA GALIPOTA!! Ondoren, izen hau futbito eta futbol txapelketetan erabili dugu lau urtez, futbol taldearen izen giza. Eta azkenik musika taldeari "GALIPOT" izena jarri diogu.

G.: Abestien hitzek zer adierazi nahi dute?

E.:Gaur egungo Euskal Herriak arazo asko bizi du, sozial mailan... eta gure hitzen bitartez arazo hoiek kaleratu eta salatu nahi ditugu.



Horregatik gure abestiak euskara hutsez dira, hitzetan adierazi nahi duguna euskaraz hobeto azaldu ahal direla uste dugulako.

G.: Zein da zuen estiloa?

E.:Egia esan, estilo zehatzik ez daukagu, gure musika rockean edo kokatzen da.

G.: Zein talde gustatzen zaizue?

E.: Negu Gorriak, Zarama, AC/DC, Cicatriz...

G.: Materialea nola lortu duzue?

E.:Hasieran pentsa eizu zein zan gure bateria: atabala eta paela txapelketa baten irabazitako kopa baten estalkia. Apurka, 2. edo 3. eskuko musika tresnak lortu ditugu, baina halan ta guztiz ere 150.000 pezeta utzi ditugu. Egia esan, ganorazko ezer izateak 400.000 pezeta suposatzen ditu.

G.: Non egiten dituzue entsaiuak?

E.:Eskola zaharrean. Dagoen toki bakarra da, eta gure lanerako balio du. Gainera, ondo dago herritik apur bat aldentua egotea.

Domeka arratsaldez beti egoten gara eta batzutan larunbata arratsaldez baita.

G.: Eta noizko lehen agerpena publikoki?

E.:Abenduaren 20an Txurdinagako institutoaren urteko azken jaialdian "ESKAPEU DEU" taldearekin batera jotzen dugu eta Gabonetan Bakioko Bodegillan izango gara.

G.: Bukatzeko, datorren urteari begira asmoren bat?

E.:Bakioko probalekuan, eta inguruko talde batzuekin batera, ekitaldi bat egitea gustatuko litzaiguke. Suposatuko duzunez, diru iturriak ere behar ditugu eta horretarako ekitaldi horretan txosnatxu bat jarriko genuke, posible balitz.

Nahiz eta oraingoak beteta izan, bigarren orrialde honen beheko zatia urrengorako zuen "iritziak" agertzeko gelditzen da.

Euskara Batzordea



Herriko taldeen ekintzak

"Gure etxea" nagusien ekintzekin hasiko gara. Irailak 1ean, jaien barruan, amaietako bategaz jubilatuen eguna ospatu zuten. bi ibialdi sozio-kulturala erE antolatu dituzte: bata irailak 21ean Hondarribiari eta beste bat urriak 19an Logroñora. Eta azkenik, abenduak 1ean urteroko Anaiarteko bazkaria egin zuten kiroleta klubean, jantoki batzuen laguntzaz.

Gure "Bakioko Abesbatza" ere ekinean dabil. Irailaren 21ean Lesakan abestu zuten trukaketa bat eginaz. Hile horretako 27an Bilboko Bidebarrietako Liburu tegian saioa bat eskeini eben, Euren zaindari den Zezilia deunaren omenez kapillan abestu zuten. Eta azkenik, abenduko ekintza bi aipatu behar dizugu: 15ean Sestaon eskaini dabena eta 28an Gabon Kontzertuetan Astrabuduan opariko dutena.

Kirol Berriak

Dakizuenez, **Alaitasuna Pelota Taldeak** antolatuta bi iharduera garrantzitsu doaz aurrera. Urtero bezela, eta bi mailatan, gomazko pelota txapelketa ospatzen ari da. Beste alde batetik, (ihazko egun eta ordu berdinetan) pelotaka ikasi nahi duten umeeek herriko pilotalekuan horretarako aukera ezin hobea edukiko dute.

"Joan etorri" mendi taldeak ere bere hileroko ekintzekin jarraitzen du: Irailak 22an Bakioko bira egin genuen Urriak 13an aitzgorrira abiatu ginen, azaroak 10ean Orixolen eta azkenik, Abenduak 8an Markinako Santa Eugenia

JO TA KE! SU TA GAR! Hori da gure ezaugarria. Bakioko K.T.ko gaztetxoak horretan dihardugu. Udazken honetan, euriaren euriz, eta hainbeste haizetez putzuetatik irten ezinik eta beste batzutan baloia harrapatzeko arazotan ibiliarren, sailkapenaren erdi inguruan mantentzen gara gero eta indartsuago. Guraso, ikaskide eta beste zaletuoi eskakizun hau luzatzen dizuegu: **ANIMA ETA ETOR ZAITEZTE!** Ziur gaude, zuen animoen laguntzaz eta gure kemenaz, ez diguna inork irabaziko.

Badakigu, "Egan" ekoek dioten bezala, ez garana honetan onenak, baina... "ekinak egina dirudi".

Hemen egin beharrekoa hau da: **EKIN ETA JARRAI!**

Beste bat arte..

HOGEIKOA



Hogeikoa Pampe-ri

1. Izena? Jose Ramon San Pelayo (Pampe)
2. Adina? 60
3. **Ezkondua** ala ezkongabea?
4. **Mendia** edo hondartza?
5. Neska ideala? Neure andrie
6. Abeslari bat? Los Chimberos
7. **Gona** edo prakak?
8. Euskal Herriko leku ederrena? Bakio
9. Bakioko leku ederrena? Aritzite
10. **Ardoa** edo ura?
11. Telebistako programa bat? Hitzetik Hertzera
12. **Kotxea** edo motorra?
13. Abortoari **bai** edo ez?
14. Zenbatetan egon zara jotan? Askotan
15. Zein da zuretzat jakirik onena? Lapikoa eta okela
16. **Janaria prestatu** edo arrikoa egin?
17. Juerga bat non? Bilbon
18. **Antzerkia** edo zinea?
19. Igande goizetan **meza** edo ohea?
20. Kirolik gogokoena? Ziklismoa
21. Irla batetara eramango zenituzken 3 gauza? Ura, ogia, eta gazta
22. Non igaroko zenituzke oporrak? Londresen.

HAU HERRIA HAU!



Zuhaitz Hiztegiak

Haritza: roble	Artea: encina
Lizarra: fresno	Elorri: espino
Urkia: abedul	Altza: aliso
Pagoa: haya	Ezki: tilo
Sahatsa: sauce	Ereinotza: laurel
Alboa: plátano	Makala: chopo
Intxaurreondo: nogal	Gorosti: acebo
Gereziondo: cerezo	Zertxurra: álamo
Zumarra: olmo	Artelatza: alcornoque
Urratxa: avellano	Izei: abeto
Gaztainondo: castaño	

Txistreak:

Jaimito etxera negarrez doa eta bere aitak esaten dio:

- Aizu Jaimito, zer gertatu zaizu?
- Ba... Andereñoak jo egin nauela.
- Zergaitik?
- Afrika ez dakidalako non dagoen.
- Ez da egongo oso urrun, nire lantegira egunero beltz bat dator eta.



Jaimitoren amak esan zion:

- JAIMITO joan pijama bat erostera.
- Bai ama.

Jaimito pijama jarrita kaletik zetorren eta ertzain batez esan zion:

- Aizu, mutiko, multa! Pijamarekin kaletik zoazelako.
- Eta Jaimitok galdetzen dio:
- Zelan duzu izena?
 - Garbantxo.
 - Multa! Lapikotik ihes egin duzulako.

7 Errakuntzak



Gurutzegrama

BERTIKALKI

1. Bakioko mendi altuena
2. Bakioko Poikiroldegiaren izena
3. Bakioko dantza talde baten izena
4. Bakioko hotelaren izena
5. Bakioko plazaren izena

HORIZONTALKI

1. Bakiotik hurbil dagoen lurmuturraren izena
2. Gizon baten izena duen Bakioko jatetxea
3. Bakion egiten den edari garrantzitsuena
4. Bakion txakolia egiten duen baserri baten izena
5. Bakiotik hurbilen dagoen irlaren izena